



Plazako multzoa (Otxandio)

XIII. mendearen erdialdean Bizkaiko jaunek gauzatu zituzten hirien sorrerak ondo pentsatutiko erabakien emaitza izaten ziren, eta zerikusia zeukaten herrialdeko geografiako toki estrategikoetan biztanleria ezartzearekin. Otxandioko kasuan, Arabaren eta Kantauri aldeko kostaren arteko igarobideetako bati bultzada ematean zetzan. Ez dakigu zein den data zehatza, baina arestian aipatu dugun gizaldiko lehenengo erdiaren azken hamarkadetan koka liteke.

Lehenengo bide zahar batean oinarri hartuta eratu zen hirigunea: kale luze bat zeukan -Artekale-, lerrotuta zeuden bi aldirik luzatuta -Uribarrena eta Urigoiena-. Kalearen aloetan etxeak, eta eliza monumentalak, hura ere lerrotuta, eta Gasteizera bidean. Bai gerrak zirela kausa, bai sutegetan eragindako suteen kariz, hainbatetan suntsitu zuen suak, eta elizaren aurreko tartea mendetan hutsik iraun zuen, nonbait, harik eta urteak aurrera joan ahala, gaur egun Plaza Nagusia osatzen duten eraikinez janzten hasi ziren.

Lehendabiziko elementu interesgarria **Udaletxeko Jauregia** dugu, Bizkaiko udaletxetan garrantzitsuenetariko bat. Barrokoko eraikina da, eta bi solairutan egituratuta dagoen fatxada oparoa erakusten deusku. Fatxada den guztian, silarriz landuta daude bi solairuak. Beheko oinean, plazara begira dagoen bost arkudun eta alboetako kaleetara beste bi arku dituen ataripea dauka. Goiko solairuan, nahikoa era erregularrean, bost balkoi zabaltzen dira. Alboetako biek banakako burdinurtuzko karelak dauzkate eta beste hirurak, berriz, aretora daude bilduta, balkoi korritu batera ematen dutelarik. Batzuen eta besteen artean, hiru armari ageri dira: Espainiakoa erdian eta Bizkaikoa eta Otxandiokoa alboetan. Gainera, ezkerrean, eguzki-erlojua dago, honako inskripzio hau daukana: **DIES NOSTRI SICUT UMBRA TRANSEUNT** (Gure egunak geriza baten moduan doaz).

Esan beharra dugu, justuak izango bagara, Otxandioko udaletxea Bizkaian topikoenetako eta zabalduenetakoa dugula, Barrokoko garaiko elementu adierazgarria baita, neurriduna eta apaindura urrikoa, eta hiri-etekin handikoa. Ez dakigu zein izan zen 1736. urte aldera diseinatu zuen arkitektoa.




Udaletxearen aurrean aurkituko dugu **frontoia**, silarrizko frontisa, ezkerreko horma eta kanapeak dituen. Elementu bikaina da eta, artapen egoera onean egoteaz gain, XIX. mendeko izpiritua ilustratuek eragin zuten aire zabaleko tarteen xarma guztia gorde ere gordetzen du. Halakoak ziren, antza, 1857.ean Arratiako Cristobal de Bernaola arkitektoari frontoiaren eraberritzea egin zezala eskaini zioten Otxandioko erregidoreak, pilota-joko zaharra merituzko pilotarietzako behar besteko kantxa ez zelako ustean jardun zutelarik.

Frontoiaren alboan arkupe luze bat garatzen da, plazaren mailan dagoen solairuari dagokionean pasealeku izateko diseinatu eta, azpian dagoena, berriz, bola-toki gisa **Paseuleku** izena ematen dio zenbaitek Otxandion arkupe horri, eta ilustrazioak hiritarrei eskaintzen zizkien ohitura egokiei buruzko hausnarketarako bideak irekitzen dizkigu. Aspektu horrek berak jada interesgarri bihurtzen du, baina are interesgarriago gertatzen da teilatuaren azpiko tartea, harrizko zutabe sail noblea daukalako euskarri. 1861. urteko data duelarik, gaur egun hainbat zereginetarako erabiltzen den tokia da, hiriaren erdi-erdian egoteak pentsatzera eman bezala.

Garai modernoan gehiegi berri dute plazaren erdian salbuetsita ageri den **Vulkanoren Iturria**. Eskemari jarraiki, esan daiteke silarrizko harroina dela eta beraren gainean Vulkanoren harrizko estatua zutitua. Ez zen oso zentzuzko izan iturria jainko horri eskaini izana, are gehiago pentsatzen badugu eraiki zeneko egunetan, hain zuzen, gainbehera nabarmenean erorita zegoela Otxandioko sutegetan burdinaren transformazioa. Gasteizekoa zen Martín de Saracibar agindutako lana izan zen nonbait, zeren Vulkanoren irudia kendu eta Neptunorena jarrita, berbera baitzen Areatzan 1851.ean onartu ez zioten proiektua.

Suaren jainkoari eginiko oroitzapen hutsagatik bihurtzen da interesgarri, Otxandioko toki-tradiziorik garrantzitsuenaren adierazgarri den aldetik, kontuan hartuta herri honetako ia jarduera bakarra mendeetan eta mendeetan, bertako sutegetan iltzeak egitea zela. Eta proiektuari berari dagokionean, nahikoa argi dago Saracibarrek Madrilen ezaguturiko iturriak erabili zituela eredu gisa eta, ausartasuna erakutsita, Bizkaiko urrutiko paraje hauetara lekualdatu zituela hiriburuan ikusi izandako patrioiak.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Plazako multzoa

Otxandio. (*Plaza Nagusia. Otxandioko guneko historikoaren erdi-erdian dago plaza*).

Bisituen ordutegia:

Kanpoko aldetik ikus daitezke elementuak.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Otxandio*)

- Santa Marina eliza.
- San Martín basilika.
- Antzinako eskolak.
- Kultura-Etxea.